

KASU PRAKTIKOA

6 urteko haur bat ikastetxean ikaskideekin jokabide oldarkorrak izaten hasi da. Haurrak arantza bifidoa du eta eskola-orduetan hezkuntza-laguntzako espezialista bat du. Hezkuntza-laguntzako espezialistak duela bi hilabete inguru higieneko eta elikadurako oinarritzko zainketak eskasak direla antzeman du. Haurra zikin joaten da eskolara eta egunero opil industrialak ekartzen ditu hamaiketakorako. Hamaiketakorako zergatik ez duen frutarik ekartzen galdetuta, aitonak beti gustuko duena erosten diola erantzun dio haurrak hezkuntza-laguntzako espezialistari. Hezkuntza-laguntzako espezialista aitonarekin informalki harremanetan jartzen da eskolara haurraren bila etortzean. Aitonak kontatzen dio haurraren ama menpekotasunak dituzten pertsonen laguntzeko zentruan sartu egin behar izan dutela, droga-kontsumo neurrigabearen ondorioz eta horregatik, haurra berarekin bizi dela. Aitona alarguna da eta gutxieneko pentsioa kobratzen du. Aitonak hezkuntza-laguntzako espezialistari egoerak gaituzten duela onartzen dio.

GALDERAK:

1. Planteatu hezkuntza-laguntzako espezialista gisa egingo zenukeen esku-hartzea.
2. Plantea itzazu familia horri laguntzeko, gutxienez, beste bi esku-hartze mota, beste Gizartean eta Komunitatean Esku Hartzea espezialitateko lanbide-irudien ikuspuntutik, hezkuntza-laguntza espezialituak ez direnak.